

Taldearen **finantza-egoera sendoari** esker, bigarren urtez jarraian irabazien %50 **gizarte dibidendura** bideratu da, guztira 122 milioi euro

Kutxabankek 244 milioirekin eta %12 hazita itxi du 2016, eta Fundazioei zuzendu die irabazien erdia

- **Zergen aurreko emaitza %54 hazi da**
- **Jarduera komertzial handia emaitzaren gakoetako bat izan da, mailegu hipotekarioak %33 eta ETEen finantziazioa %10,3 hazi baitira**
- **%15,2ko CET1 indizearekin kaudimenean alorreko buru izaten jarraitzen du, eta errentagarritasuna eta eraginkortasuna hobetuta amaitu du urtea**
- **Zalantzazko aktiboak 900 milioitan murriztu ditu eta berankortasuna %6,78koa izan da, %9,11n dagoen alorraren batez bestekoaren azpitik**

2017ko otsailaren 25ean.- Kutxabank Taldeak **244,2 milioi euroko** irabazi garbiarekin amaitu du 2016. urtea, 2015ean baino **%12 gehiago**.

Euskal Bankuaren **finantza-egoera sendoari** esker, eta araudiaren barruan, BBK, Kutxa eta Vitalek kudeatzen dituzten **Gizarte-ekintzetara irabazien %50 bideratu du** bigarren urtez jarraian. Honela, hiru erakunde sortzaileek **122 milioi euroko** gizarte-dibidendua jasoko dute.

Emaitzek Kutxabank Taldea berriro Espainiako **finantza-sistemaren buruan** jartzen dute kaudimenari eta likidotasunari dagokienez, eta gainerako kudeaketa-ratioetan ere

★★★★★★★★★★

Kudeaketako adierazle

guztiak hazi dira :

kaudimena,

berankortasuna,

errentagarritasuna eta

eraginkortasuna

urte

★★★★★★★★★★

hobekuntzak izan ditu: **errentagarritasunean, eraginkortasunean eta kaudimenean.**

Bilakaera positibo hau **adierazle makroekonomikoak hobetu diren** testuinguruan lortu da, baina **banka-negozioarentzat kaltegarriak diren baldintzek** bizi-bizi irauten duten bitartean. Azken ekitaldian bezala, oso **zaila** izan da 2016. **Interes tipoak negatiboan eta gutxiengo historikoetan** egoteaz gain, politikak eta

ekonomiak sortutako **ezjakintasun egoerak** sustatuta **merkatuen lurrinkortasuna** oso sakona izan da, bai nazioartean nola etxean. Hori guztia, **ikuskatzailearen eskakizunak handiak** izanik eta **oso aurkakoak izan diren araudien** erdian.

Faktore kaltegarri hauekin ere, azken emaitzak hobera egitea lortu du, hein handi batean **jarduera komertzialak eman duen bultzadarengatik**, funtsean hipoteken negozioak eta ETEen finantzaketak, **marjinen kudeaketa onarengatik**, **aseguruen negozioak** izan duen ekarpen handiagorengatik eta **pentsio planetan eta fondoetan** kudeatutako bolumenek izan duten hazkundearengatik, bai eta arriskuei lotutako aldagaien politikak izan duen hobekuntzarengatik ere. Palanka hauei **higiezinaren merkatuak nabarmendu duen bilakaera hobea** eta **maileguren kaudimendun eskaria** handitu izana gehitu zaizkie, **inbertsio zorroa balioan** jarri izanarekin batera, kontrako araudien eraginak neurri batean orekatzeko.

Urteko emaitza hauek lortzerakoan erabakiorrak izan dira halaber kostuen murrizketa eta **zuzkidura behar txikiagoak -294,7 milioi euro**, 2015eko 479,3 milioien aldean-, zalantzazko aktiboak eta ez produktiboak **900 milioi baino gehiagoan** murriztu eta gero.

Tipo negatiboek emaitzen kontua markatu dute

2016ko emaitzen kontua aztertzean **tipoek negatiboan jarraitu** dutela aintzat hartzea ezinbestekoa da. Urtebeterako Euriborrak **-%0,080an amaitu zuen abenduan**, eta urte osoko batez bestekoa **-%0,034koa** izan da, 2015eko mediaren azpitik oinarriko 21 puntu.

Testuinguru horretan, Kutxabank Taldearen **Interesen Marjina 557,9 milioi eurotan** kokatu zen 2016 urtea amaitzean, aurreko urtearen aldean %9,8 azpitik. **Urtebeterako Euriborrak -%0,08an amaitu zuen abenduan** nabarmen murriztu **Tipoen gainbehera orekatzeko erabili den palanka nagusia prezioen kudeaketa aktiboa** izan da. Horren eraginez, joan den jeitsiera honi esker **finantza gastuak ere txikitu dira**, 2015eko abenduarekin alderatuta %44,5 baitira.


Zerbitzuengatik Sarrerak 343,8 milioi eurora heldu dira, aurreko urtean baino %3,5 gutxiago. Araudi berriak BGAEen kudeaketako komisioak murriztu izanak, eta urtearen zatirik handienean Brexitak edo Europako eta AEBko ezegonkortasunak eraginda **finantza-merkatuek izan duten bilakaera txarrak**, kudeatutako ondareetan eragina izan dute, bai eta zerbitzu hauengatik jasotako komisioetan ere.

Aitzitik, ordainketa bitartekoei lotutako **zerbitzuen komisioek** bilakaera positiboa izan dute, kontsumoak hobera egin duelako eta Kutxabank Taldeak hainbat zerbitzu berri eskaini dituelako.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2016ko abendua

Mila €tan	2016	2015	%Δ
Interes-marjina	557.998	618.898	(9,8)
Komisio garbiak	343.825	356.283	(3,5)
OINARRIKO MARJINA	901.823	975.181	(7,5)
Partaidetuen Errendimendua	138.617	91.760	51,1
Finantza Eragiketen Emaitzak	170.774	84.518	102,1
Beste Ustiapen Gastuak	45.210	31.670	42,8
MARJINA GORDINA	1.256.424	1.183.129	6,2
Administrazio Gastuak	(648.505)	(692.889)	(6,4)
Amortizazioak	(56.086)	(55.993)	0,2
ZUZKIDUREN AURREKO MARJINA	551.833	434.247	27,1
Narriadurak eta beste emaitzak	(238.104)	(229.969)	3,5
ZERGEN AURREKO EMAITZA	313.729	204.278	53,6
Emaitzekiko zerga eta gutxiengoak	(69.481)	14.504	n.s.
TALDEAREN EMAITZA	244.248	218.782	11,6

Interes tipoak murriztuta dauden honetan, 2016ko jarduera komertzialaren gakoetako bat bezeroentzat balioa duten produktuen komertzializazioa izan da, tartean **aseguruen**. Honela, aseguruen negozioak Taldearen emaitza garbira egin duen ekarpena **%15,1** hazi da.




Partaidetuen zorroak betikoa duen bilakaera sendoa izan du eta Taldeari egiten dion ekarpen errepikariari ohiko erritmoan eutsi dio. **Dibidenduengatikoko sarrerak** eta baliokidetasunean jartzeak **139 milioi eurora** heldu dira, aurreko ekitaldian baino %51 gehiago. **Finantza eragiketen** emaitzak **170,7 milioi** eurokoak izan dira, aurreko urtean baino %102,1 gehiago. Honekin guztiarekin, **Marjina Gordina** 1.256,4 milioi eurotan kokatu da, 2015. urtean baino %6,2 gorago, jarduera komertzialaren eta enpresa-zorroaren jarduerak hobetu egin direla baieztatuz.

Eraginkortasuna hobetu egin da ustiapen gastuak %5,9 murriztuta

Ustiapen Gastuak euspen-joerarekin jarraitu dute eta **%5,9 murriztu** dira, gastuak txikitzeko eta baliabideak hobetzeko ezarri diren politikien eraginkortasuna agerian utzita. **Pertsonaleko gastuak %6,1 txikitu** dira aurreko urtearekiko, langilegoa arrazionalizatzeko ezarri diren neurriei esker. Gainera, gastuak murrizteko ahaleginaren

ondorioz **administrazioko gastu orokorrek %7** egin dute behera. Azkenik, **amortizazioek %0,2ko** hazkunde arina izan dute.



Oro har, **eraginkortasun indizea %56,1ean** kokatu du 2016ko urte amaieran, urtebete lehenago zuen %63,3aren aldean. Ratio honek adierazten duenez sarrera gordinen 100 eurotik 56 gastatzen dira. Urte bakar batean **7,2 puntu murriztu da** maila hori, erakundeak bere buruari ipini zion erronka nagusietako bat betetzeko bidean.

Saneamenduak eta kontingentzien estaldurak zuhurtzia maila gorenean mantendu dira maileguen, higiezinen eta arlo judizialeko estalduretan. Honela, banka-negozioaren hobekuntzari esker bideratutako zuzkidurak adierazgarriak izan dira, **294,7 milioi euro**. Beraz, euskal banka Taldeak eskakizun maila handikoa den araudiari aurre egiteko oinarri trinkoak ditu. Gainera, Estatuko araudi fiskalaren aldaketak eragin zuzena izan du 2016ko emaitzetan. Honekin guztiarekin, **zergen aurreko mozkina %53** baino gehiago hazi da, **313,7 milioi eurora** iritsi baita.

Zuzkidurak oso nabarmenak dira oraindik ere, 294,7 milioi, araudiari eta auziei aurre egin ahal izateko
★★★★★★★★★★


Berankortasunaren jaitsiera gogorra eta adierazle guztien hobekuntza

2016k argi eta garbi berretsi du **berankortasunaren** bilakaeran 2014an hasi zen inflexioa. **Zalantzazkoan egindako sarrerak %22 jaitsi** dira iazkoen aldean eta zalantzako aktiboen saldoa urritu egin da, ondoz ondoko hamaikagarren hiruhilekoan -900 milioi euro baino gehiago iazko ekitaldian-. Hori guztiori Taldearen **berandutze ratioaren** etengabeko hobekuntzaren mesedetan etorri da, abenduko itxieran **%6,78an** kokatu baita, 2015ean baino 187 oinarrizko puntu gutxiago, eta sektorearen batez bestekoa baino nabarmen hobeto, %9,11ko berankortasunaz itxi baitzuen 2016ko ekitaldia. Higiezinen jarduerari lotutako berandutzea kanpo utziz gero, ratioa **%4,62an** kokatuko litzateke. Arestian

aipatutako eraginkortasun eta berandutze ratioen hobekuntza nabarmenaz gain, gainerako kudeaketa-adierazleetan aurrerapen garrantzitsuak dituela itxi du 2016 Kutxabank Taldeak. Europako Banku Aginteak (EBA, ingelesezko siglatan) burutu duen **gardentasun ariketak**, berriz ere, Espainiako finantza **sektorearen buruan** kokatu du Euskadiko bankua, kalitate goreneko **kaudimen terminotan**, eta kontrako baldintzei aurre egiteko ondoen prestatuta dagoen Europako erakundeetako bat dela dio.

2016ko itxieran, Taldearen **orotarako kaudimen koefizientea** nahiz **Core Tier I** ratioa %15,2an kokatu dira. **Fully loaded** bere bertsioan (kapitala kalkulatzeko zenbaketa iragankorraren arauak aintzat hartu gabe), **%14,8an** finkatuta geratu da indize hori. **Palanka-efektuaren ratioa**, bere aldetik, %8,1era iritsi da, sektorearen batez bestekoaren oso gaineratik.

ADIERAZLE NAGUSIAK	2015	2016
Berankortasuna	%8,65	%6,78
ROE	%4,66	%5,06
ROTE	%4,94	%5,33
ROA	%0,37	%0,42
Eraginkortasun ratioa	%63,3	%56,1
Core Tier I (Phase-In)	%14,6	%15,2
CORE TIER I (FULLY LOADED)	%14,3	%14,8
Kapital osoa	%14,7	%15,2
Palankatze ratioa	%7,7	%8,1



Finkatutako helburuen ildotik, Kutxabankek bere **errentagarritasun ratioak** hobetzen jarraitu du. **ROE** koefizientea, berezko baliabideen gaineko errentagarritasuna neurtzeko erabilia, **%5,06an** kokatu da, 2015eko abendukoaren gainean 40 oinarrizko puntu hobetu ostean. **ROTE** –ukiezinak kenduta akziodunek inbertitutako fondoen gainean lortzen duten errendimendua neurtzen duen ROEren bilakaera-, bere aldetik, **%5,33an** geratu da finkatuta, iazko ekitaldiko %4,95aren aldean.

Kredituen kontratazio erritmo biziak finkatu egin du inflexio-puntua

Bezereen baliabideen eta kreditu-inbertsoaren bilakaeran gertatu den hobekuntzaz, Kutxabank Taldearen **Negozio Bolumena 100.321 milioi** eurora iritsi da, **%0,8ko** urteko hazkundeaz.


★★★★★★★★★
Tasak minimotan
daudela, inbertsio
fondoak **%6,5 hazi dira**
eta pentsio planak **%2,4**

★★★★★★★★★
Kudeatutako Bezereen Baliabideak, handizkako jaulkipenak aintzat hartu barik, **56.760 milioi** eurora iritsi dira, 2015eko abenduan baino **%3,8** gehiago. Xehekako sareek bultzatutako hazkunde hori bereziki esanguratsua izan da, merkatuen ezaugarri izan den hegazkortasuna hartzen bada aintzat.

Bezeriaren gordailuak (hipoteka-zedulak izan ezik) **%2,6** hazi dira, **ageriko gordailuen** portaerak lagunduta, **%15** igo baitira azken horiek.

Gainera, eta interes-tasak gutxieneko historikoetan direla, eutsi egin zaio balantzetik kanpoko produktuekiko bezereen aldeko jarrerari, errentagarritasun erakargarriagoen bila, eta horrek hazkunde esanguratsuak ekarri ditu: **Inbertsio Fondoak (%6,5)** eta, neurrian, **Pentsio Planak (%2,4)**. Taldearen kudeatzaile biek, **Kutxabank Gestión** eta **Fineco**, burututako jarduera biziak sektorearen batez bestekoaren gaineko portaerari eustea lortu du, eta ondorioz, aurrerapena lortu du bere merkatu-kuotan, **%5,5** inguruan kokatu baita. Kutxabank Taldeak **laugarren kudeatzaile** postuari eutsi dio, inbertsio fondotan, pentsio planetan eta BGAEtan kudeatutako **ondasun bolumenari dagokionez**.

Bezereen Gordailuen eta Balantzetik Kanpoko Baliabideen Banaketa



Aktibo eragiketa berrien bolumenak desapalankatze-efektua konpentsatzea gutxiengatik lortu ez badu ere (kreditu amortizazioengatik eta zalantzazkoen saldoaren jaitsieragatik), igoera esanguratsua gertatu da **kreditu berrien kontratazio** erritmoan, eta horrek 2017rako aurreikusitako **inflexio-puntuaren** hurbiltasuna egiaztatu du.

Kutxabank Taldearen **Kreditu Inbertsio Garbiak 42.176 milioi** euroekin amaitu du 2016 urtea, hau da, **%1,2ko** jaitsieraz. Zalantzazko aktiboen jaitsiera esanguratsua kontatu gabe, kreditu inbertsio gordina **%0,8ko** jaitsiera txikiaz mantenduko zatekeen.

Jarduera komertzial biziko urtea

Dagoeneko deskribatu den testuinguru ekonomiko konplexuan, Kutxabanken helburuen lorpena **jarduera komertzial bizian** oinarritu da, finantza **produktu berrien kontratazioan** izan duen hazkunde nabarmenaren eskutik, batez ere **enpresetarako finantzaketari** lotuak, **hipoteka-maileguei** eta **kreditu pertsonalei**. **Aseguruen negozioaren** ekarpen gorakorrek ere lagundu duela esan behar da.

★★★★★★★★★★

Kutxabanken 'aurrez emandako maileguak', 26.500 milioiko orotarako kopuruaz, 1,4 milioi bezerotara iritsi dira


★★★★★★★★★★

Eskaera gero eta suspertuagoaren eta **hipoteka-merkatu gorakorren** eskutik, **etxebizitza erostera** bideratutako kredituek goranzko joerari eutsi diote 2016an. Urte hasieran **hipoteka misto berritzailea** merkaturatu ostean, Kutxabankek merkatu osoko eskaintza osoenetakoa du, malgutasun zabala baitu epealditan nahiz interes-tasetan.

Emandako zenbatekoak **%33 hazi dira**, merkatuaren batez bestekoaren gainetik, banku erakundeak diharduen eremu guztietan. Tasa finkoko eta tasa mistoko modalitateek gero eta pisu handiagoa duten eskaintzaren eskutik, Kutxabankek bere **lidergoa** sendotu du **hipoteka kuotan, %36** inguruan mantendu baita bere jatorrizko lurraldeetan.

Kontsumorako maileguen arloan garatutako jardueraren indarra ere nabarmena izan da, **%29** hazi baita horien gauzatzea. Kreditu jarduera horri **kanal teknologikoak** etengabe **gehitzeak** finantzaketa-eragiketak **Online Bankaren** eta **Banka Mugikorraren** bidez gauzatzen dituzten pertsonen kopurua handitzea ahalbidetu du. '**Aurrez emandako maileguak** deritzenei onura atera diezaieketen pertsonen kopuruak ere gora egiten jarraitu du, horien zorroa **1,4 milioi bezerora** iritsi baita eta **26.500 milioi** euroko zenbatekora.

Ekonomiaren susperraldia, Kutxabankek, 2016an, kontsumorako finantzazioan izandako gehikuntza islatu da.



ETE-en finantzaketa beharrizana krisiaren aurreko mailetara hurbildu da

ETE-en jarduera gorakorak krisiaren aurreko mailetara hurbildu ditu haien **finantzaketa** beharrizanak, eta **%51ko hazkunde sendoa** berretsi da **inbertsio emankorretarako** finantzaketan. **2.400 milioi euroko** orotarako zenbatekoa jarri du Taldeak enpresa txiki eta ertainen eskura, 12.700 milioitik gorakoa den zenbatekoa, korporazio handiak batuz gero.

★★★★★★★★★★
Kutxabank Taldeak
130.000 aseguru-poliza
berri baino gehiago
gauzatu ditu 2016an,
%8 gehiago
 ★★★★★★★★★★★

Beste alde batetik, **bezeroen aseguratze integralaren** aldeko apustu tinkoa egin du Taldeak, izan ere, bezeroek emaitza kontuari egiten dioten ekarpenak ez baitio hazteari utzi, estrategia komertzial aktiboari nahiz zorroaren kudeaketa eraginkorrari esker. 2016an poliza berriak jaulki dira, hala nola, IMQrekin elkarlanean garatu den osasun-asegurua, alokairuen babes-asegurua eta autonomoentzako osasun-asegurua. **130.000 poliza berri** gauzatu dira, **%8 gehiago**.


Kutxabankek Enpresa Txiki eta Ertaintentzako finantzazioa handitu du 2016an



12.700MM€-ko guztizkoa korporazio handiak batuz



Urte arteko aktibo finkoa finantzatzeko eragiketak



Zirkulatuzaileko eragiketak



Enpresa-inbertsioaren gehikuntza



Kutxabank, abangoardia teknologikoan

Teknologia berrien arloan, 2016 ekitaldi bereziki aktiboa izan da Kutxabankerako, bere zerbitzuaren kalitatea eta erosotasuna hobetzen jarraitzeko egin duen apustu estrategikoaren ildotik. Bere **Online Banka** zein **Banka Mugikorra** erabat **eguneratzeaz** gain, ekitaldiko mugarrietako bat '**Bizum**', ordainketa-plataforma bakarra, abiaraztea izan da, izan ere, plataforma horren sorreran parte aktiboa izan du Kutxabankek. Bizum '**Kutxabank Pay**' delakoaren barruan integratu da, erabat doan den aplikazioa eta klik bakarrean Txartel Birtual guztietara sartzea errazten duena, **lupay** aplikaziora, baita erakundearen Banka Mugikorrera ere. **Sinadura digital zerbitzu** berria ere abiarazi da, hortaz, ez da beharrezkoa pertsonalki bulegoetara joatea banku kontratuak sinatzeko.

Kanal teknologiko berriek ematen duten erosotasuna eta segurtasuna eragiketak batez ere 'online bidetik' egiten dituzten bezeroen kopuruaren **etengabeko hazkundera** eragiten ari dira. Kutxabanken kasuan ehuneko horrek hiru puntu egin du gora urte batean, **%32**raino, hain zuzen ere.

Kutxabankeko kanal digitalei eskainitako konfiantza handitu da

